

**BIZKAIERA ETA EUSKARA BATUA
"MENDEBALDE ALKARTEA" N**

Orriz jantzitako liburuetan irakurri izan dot ideia hau, idazleak ez dakiela norentzat idazten dauan. Neuk bere ez dakit ondoegi, baina Karmelerako dala jakinik antza emongo neuskio-lakoan nago. Gazteentzat idazten dodanean, itsaso zabala, zeru handia eta muga bako parametroak jartzen ditut. Karmelen, ostera, ibilbide neurtuagoa edo baieztapen doituagoak erabili beharko dira, irakurlego jantzia dala hor jakinda.

Orain 30 urte Euskaltzaindiak euskara batua abian jarri ebanean, euskalkiei isiltasun sasoia heldu jaken. Urte haietan euskaldun banatuok herbeta bakarra izan gengian, batetik, eta euskaldunak frantsesa edo espainolaren aurrean erantzuteko gaitasuna eduki eian, hizkuntza bakar, modernoa genduan beharrezko eta, horren ondorioz beste arlo batzuk -euskalkia-rena euren artean- bigarren mailara pasatu genduzan. Pentsatu daigun metodoagaitik izan zala, ez interes gitxiagokoa zalako. Hogeita hamar urte geroago, modan jarri da bizkaiera -nafarrera eta gainerakoen antzera-. Itxuraz, penduluaren legea betetzen da hemen, gizakiaren bizitzan gertatzen dan antzera. Ze, modak zer erakusten dau gure gogoa beti sen baten ibilita nekatu egiten dala baino besterik? Badagoz, edozelan bere, arrazoi zientifikoak, halan linguistikatik datorkuzanak -idatzia- ren aurrean ahozkoa aintzat hartzea-, nola ikus-entzunezko tresnak berbazkoari indarra emotearenak. Beste alde batetik,

ahozko euskera batu barik aurkituteak arazo barriak geurearteratu dauz, berez euskalkietan konponduta egozanak. Ezin ahaztuko dogu, ganera, bizkaiera dakienaren artean aurkitu izan dogun konplejoa edo okerrago dana, euskara batu edo normatiboa bizkaieratik nahiz zubereratik gehiegi aldentzeagaitik mindurik jarraitzen dabenen eretxia. Eta ez dira falta, erabilera-ko arrazoi larriak be, guraso batuzaleak eurak konturatutea, seme-alabak ez ekiela eguastena erabiltzen zein elaiia zer zan, bien bitartean kontradizioa sakonagoa izan eiten inguruan entzuten zan eta dan euskera ia guztian eguastena eta elaiia baino erabiltzen ez danean.

Orduan estandarraren alde izan ziran gehiegikeriak, gaur, arlo batzuetan, euskalkian egiten dira -herri aldizkarietan idazkera fonetikoa erabiliz esate baterako-, edo euskara batua erabiltzeko dan leku aiposean etxeko euskaraz berba eginda. Seguru asko, batasuna zer edo zelan dan edo euskalkiari zer jagokon ez ezagutzeagaitik.

Holakoak gorabehera, euskalkia gehiago eta egokiago erabili behar da. Ezin egon gaitekez pozik azaleko gauzatan, itxurazkoetan badarabilgula eta. Euskalkiaren aldeko haizea, udagoieneko gaztaina, intxaur eta botoak bakarrik batzeko ez da, euskalkia be batu behar da, edo ikertu, zabaldu eta jagon. Batu, lekuko fidagarri diran aitita-amamen euskara betikoa. Asko aurreratu dan arren, gehiago da egin leitekena. Ez da ahaztutekoa, dana dala, Euskaltzaindiak burutu dauan Atlas Linguistiko aberatsaz ganera lan ederrak egin dirala. Ikertu beharra dagoa la be errez errez konturatuten gara, arrazoi ugari da horretarako eta. Hogeita hamar urtean gai batzuetan erdi geldi mantendu dan bizkaieraren arloak hamaikatxo premina erakusten dau: eredutasun osotu bakoa, eguneratze beharizana, ez daki-gunaren ganeko ikerketa. EHUak, Deustukoak egina, lan jaso bada be, ez da nahiko. Aurrera jotzeko, tresna oso urriekaz gabiltz. Irakaskuntzan liburu gaurkotuen hutsune handiegia ikusten dogu; komunikabideen sailean aldizkari baten beharizan gorria sentitzen da, eta abar.

Behin honezkero, artogatuko zan bataren bat holako usteakaz nora ete goazen pentsatuta. Uste izan leike pertsona horrek interneten nabigatzera baino gurdietara itzultzen garala. Errez erantzun leikio esanaz interneten nahiz gurdian garrantzitsuena idien aurretik joatea dala, buztarrian itaurrekoa joaten zan moduan. Eta idien zein ideia kontuan inoz argi eduki badogu, gaur egunean daukagu argi Euskal Herri ikuspegia, batez bere Lizarra-Garaziren ostean; baita osotasun politikoak euskararen batasuna eskatuten dauala, guztiontzako berbeta bat.

Mendebalde Kultur Alkartea

1994an, Euskaltzaindiaren Leioako XIII. Biltzarra hasi aurretik, hau da, 1993.eko martiaren 12an alkatu ginan euskaltzale batzuk, uste izanik, bizkaieraren ekarria gehitu egin behar zala euskara batuan, izan be zeozergaitik ziran euskara batua onartzetik 25 urte ospatzen eta.

Alkartearen arautegian irakur daiteke: "Euskal hizkuntzaz bere osotasunean, eta bereziki euskara batuari Euskal Herriko Mendebaldeko euskarak, bizkaiera izenaz ezagutzen denak, eskain diezaiokeen ondarea ikertzea eta bultzatzea".

Mendebalde moduko taldea agertu daiten, pausu garrantzizkoak emon behar izan ziran arteragotik. Euren artean, euskara batua onartzea, batetik, eta euskalkiaren goratzea, bestetik. Halan da ze, euskara estandarra ezarritzat dagoala, euskararen barruan bizkaierak daukan zeregina landu gura da gure artean. Mendebalde Alkartearen filosofia, jaio dan urteetan jaiota, sintetiskoa da zeozelan esateko. Euskera batua sortu ostean izan ziran hasarreak -h letrak katalizatu zituanak-, ez daukee gure egunotan halako indarrik, ze euskera estandar hori edozein euskalki edo euskalki guztiak batera baino gorago ezarri da, bai administrazioak halan ipini daualako, baita herritarrok onartu dogulako be.

Pertsona jakin batzuen ekintza dan arren, Mendebalde eta beste alkatu batzuk gorago aitatu dogun euskalkien aldeko giroan

ernekoak dira. Sortu be halantxe sortu dira Eibarko euskararen araututea, Aretxabaletakoarena, Bergarakoarena edo Mungiako Nontzebarriren erako aldizkariak nahiz aurrelari dan bizkaieradun bertsolarien eragina. Mugimendu horrek erakusten dauana da, erakunde herritar asko adin nagusitasunera ailegatu dala eta amen esatetik hamen esateko adorea eta erabakia erakutsi dala. Ez dogu horregaz esan gura, giroa aldeko suertatzeak talde zein ekintzen berezko agertutea dakarrenik, ze giro aproposa beste hainbeste lekutan be izango zan baina antzu gertatu da.

Lau urte urpean eta agiriko hirugarrenean dihardugula, esan geinke Mendebaldeko euskalkiagaz zelan jokatu behar dogun jabetu garala, baita zeintzuk diran eginbeharrak be. Ez daukaguna neurria da, egin gura dogunaren eta burutzeko falta jakuzan bitartekoen artean. Beste berba batzuetan, egin gura doguna baino ahal doguna gauzatzen dogula. Lastimagarriena da, zibernetika sasoiotan aldaketak gertatzen diran abiadan gertaturik, gaur aurrera ataraten ez danerako gesu baten belu izan leitekela.

Beste alderdi batetik, hor zehar emon doguzan berbaldietan zein hartu-emonetan ikusi dogu, guretzat aspaldian atonduta egon diran gaiak hasi barritan daukeezala beste zirkulu batzuetan. Penagarria eta denpora galtze handia. Badirudi konparatimendu isolatuetan bizi garala eta nor bere kontura ohartu arte itxaron behar dala oinarritzko ideiez jabetuteko, jakinik gehienetan taldeko lanaren emaitza ezin leitekela bakarlanean eskuratu. Edonork daki, edozelan bere, Labaiyru aspaldian dabilela beharrenean baita hainbat ikastola be. Halan eta guzti, orain artean inork oratu ez deuten zereginak daukaguz begi aurrean.

Lino Akesolo bizkaierarako idazle eredugarriak idatzi eban lez, "Honen txikia izan gure auzotxoa, eta, zer uste dogu alkar hain gitxi ezagutzeko?" (Olerti, 1962, 122). Bakotxak bere aldetik bideginean jardunda, onenean be bide zidorrak idikiko doguz, baina nekez autobiderik. Bizi garan urteotan gura nahiz gura ezkoa da batzanduta jokatzea, ze erronkak handiegiak di-

ra bakarrean aurre egiteko. Horixe da Mendebalde Kultur Alkartearen existentziarako arrazoiatariko bat.

Ganera, euskara batuan bertan be -edozein jabetuko danez, igerri-igerrian dago bizkaieraren presentzia azken urtetxuotan: lar, neba-arreba, amama-aitita, beilegia, antza, itzela eta antzerako berba zein esmoldeak barra-barra aurkituten dira. Halako emoitzak ez dira berezkoak, nonor ibiliko zan albotik edo azpitik. Eurretaniko bat Mendebalde Kultur Alkartea, eta, beti bere, ikur moduan hauxe jarrita: bizkaiera dakigunok hasi behar dogula geure euskara estandarrean erabiltzen, ostean beste batzuk hasi daitezkan gura badogu. Ondorioz, edonor konturatuko da, hizkuntzak biziak diranez, hau da, zahartu be egiten dirala nahiz barritu, bizkaierak laguntza handia dakarrela barriztatze honetan, ze, azken baten, bizkaiera aurrera atara gura dogunok pentsatu behar dogu, bizkaiera lantzeagaz batera, euskara estandarra be geuregana ekarri behar dogula, amaitu euskara batua dala irakatsiz edo atz eta behatz ezin nahastuzkoak jakuzala.

Dana dala, joanak joan eta esanak esan, badakigu euskalkien gorabehera hau euskara osoarena danez, Euskal Herri guztia jagokola. Arrazoi horrexegaitik agertzen da beharrezko moduan dialekto guztien ardura bere txikoan hartuko leuken taldea sortutea, behar bada Euskaltzaindiko Jagon Sailaren barruko talde berezi moduan. Batetik, Mendebalden erako taldeok Nafarroa zein Zuberoako barri izango geunkelako, bestetik, konpondu bako arazo teorikoak badiralako eta, ganera, Euskaltzaindiko ekintzari darion batasun ospeagaz, txarto ulertuak zein orain urteak ezagutu ziran burruka antzuak itzungiko leitekezalako.

Inork Mendebalde Kultur Alkartea zertan dan jakiteko asmorik badau, jakin bei biderik egokienetariko lakoa hileroko batzarretako aktak, urteko Memoria, maiatzeko Jardunaldiak, argitaratutako liburuak eta, batez bere, hartu emon lagun artekoa dirala.

Juan Luis Goikoetxea